



BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUA

PROBA LIBREA

KOMUNIKAZIO-EREMUA EUSKARA ETA LITERATURA

2014KO MAIATZA

IZEN-DEITURAK: _____

SINADURA:



JARRAIBIDEAK

1. Testua eta galderak arretaz irakurri.
2. Galdera guztiak erantzuten saiatu.
3. Emandako denbora baino lehen bukatuz gero, birpasatu egindakoa.
4. Adi ortografiari: letra larriak, txikiak, puntuak, komak, etab.
5. Horrela eskatzen den ariketetan, erantzun zuzena biribildu edo gurutze bat egin.
6. Galdera bakoitzaren alboan dator puntuazioa.
7. Ez dago puntu negatiborik.

BIDEOJOKOAK

Bideojokoak gure bizitzako zati dira gaur egun. Urte asko daramatzate gure bizitzan eta ohiko bihurtu direla esan daiteke. Lehen joko elektronikoa interaktiboa 70. hamarkada hasieran sortu zen. Berrogei urte hauetan, eta teknologiak bizi izan duen garapenaren eraginez, bideojokoak asko hobetu eta hedatu dira. Gaur egun merkatuan dauden jokoek hasierako antz gutxi dute, lehenak oso sinpleak baitziren.

Gaur egun hainbat bideojoko daude merkatuan. Ondorengo taldeetan banatuta daude:

Arcade. Joko hauetan pantailak gaintitu behar dira jolasten jarraitu ahal izateko. Erritmo bizia izaten dute eta denbora gutxian erreazionatu behar da.

Ekintzetakoak. Borroka eta leihetan oinarrituta dauden jokoak dira. Ekintza burutzeko botoia sakatu behar da. Erreflexu azkarrak izan behar dira eta begien eta eskuen arteko koordinazioa ezinbestekoa da.

Kiroletakoak. Joko horietan hainbat kirol islatzen dira. Trebetasuna, azkartasuna eta doitasuna ezinbestekoak dira ongi jolasteko. Banaka eta taldeka jolasteko aukera eskaintzen dute.

Estrategietakoak. Aurkaria gaintitzeko estrategia eskatzen duten jokoak dira. Horietan modu egokian jolasteko kontzentrazioa, errekurtsuak ongi erabiltzea, pentsatzea eta strategiak zehaztea eskatzen da. Modu horretan, aurkaria gaintitzeko ekintzak burutu ahal dira.



Simulaziokoak. Joko horietan makinak, fenomenoak eta egoera ezberdinak simulatzen dira. Agintea hartzea eta estrategia konplexuak aurrera eramatea eskatzen dute.

Mahai jolasak. Trebetasunezko jokoak dira eta, askotan, galdera-erantzunetan oinarrituta daude. Erreflexuen azkartasuna eta koordinazioa eskatzen dute. Gainera, ezagutza berriak jasotzeko baliagarriak dira.

Joko mota hauek hainbat kritika eta gorespen jaso dituzte. Batzuen aburuz, bideojokoak txarrak dira, batez ere haurrentzat. Beste batzuen aburuz, ordea, bideojokoek burua garatzen laguntzen dute. Ondoren, bideojokoaren inguruan dauden abantaila eta desabantailak laburbiltzen dira:

Jokoen desabantailak

- Urduritasuna eta antsietatea eragin dezakete.
- Balio ezegokiak helerazi ditzakete.
- Bakartasuna eragin dezakete.
- Menpekotasuna eragin dezakete.

Jokoen abantailak

- Espazioaren eta denboraren antolaketa egiten laguntzen dute.
- Begi eta eskuen arteko koordinazioan laguntzen dute.
- Erreflexuen eta adimenaren garapenean laguntzen dute.
- Estrategiak aurrera eramaten laguntzen dute.
- Kontzentrazioa suspertzen dute.

GALDERAK

1.- Bideojokoek edukiaren inguruan informatzen duten ikur bat edukitzen dute. Begiratu arretaz eta lotu gezien bidez ikur bakoitza bere esanahiarekin. (0,7 ptu)



Ikurrak bortxakeriaren inguruan informatzen du.



Ikurrak adinaren inguruan informatzen du.



Ikurrak bereizketaren inguruan informatzen du.



Ikurrak hitz zatarren inguruan informatzen du.



Ikurrak beldurraren inguruan informatzen du.



Ikurrak sexuaren inguruan informatzen du.



Ikurrak drogen inguruan informatzen du.

2. Testuaren arabera, esan baieztapen hauek egia (E) ala gezurra (G)diren. Markatu gurutze batez. (1,2 puntu).

	E	G
1. Lehen joko interaktiboa duela 70 urte sortu zen.		
2. Mahai jolasak dira joko guztietatik erakargarrienak, eta buru kontzentrazio handiena behar dutenak.		
3. Batez ere, kritikak jaso dituzte joko elektronikoko interaktiboek.		
4. Bideojokoek ikasteko ere balio dute.		
5. Gaur egungo gizartean garrantzi handia dute bideojokoek; izan ere, gure bizitzaren atal bihurtu dira.		
6. Bideojoko gehienetan azkartasuna funtsezkoa da.		

**3. Hiru hauetatik zein da testuaren laburpen egokiena? (1 puntu)**

a) Bideojokoak asko garatu dira teknologiari esker; horregatik, asko dira gaur egun merkatuan ditugun jokoak, eta trebetasun anitz garatzeko baliagarriak dira. Hala ere, desbantailak ere badituzte.

b) Bideojokoek gure bizitzaren atal bihurtu dira; izan ere, garapen oso handia izan dute sortu zirenetik hona. Gaur egun, joko mota asko ditugu eta hasierakoak baino askoz konplexuagoak dira.

c) Bideojokoek, jendearen ustez, abantaila asko dituzte, baina inportanteena da adin guztietarako eta trebetasun guztiak garatzeko topa daitezkeela. Botoiekin azkar jokatu behar da.

4. Zein da testuaren helburua? (0,5 puntu)

a) Idazleak bere iritzia ematea bideojokoei buruz.

b) Bideojokoei buruzko informazioa ematea.

c) Bideojoko motak zehatz deskribatzea.

5. Bilatu testuan honako hitz hauen sinonimoak: (1 puntu)

1. elkarreragile
2. bilakaera
3. zabaldu
4. makina bat
5. kontrako
6. egin
7. abildade
8. laudorio
9. arrunt, betikoa
10. iritzi

6. Berridatzi beheko bi esaldiak. Horretarako, erabili letra lodiz ematen den hitza. (0,5 puntu)

(Adibidez) :“Teknologiak bizi izan duen garapenaren eraginez, bideojokoak asko hobetu dira” **(-dako)**

Teknologiak **bizi izandako** garapenaren eraginez, bideojokoak asko hobetu dira.



- a) “Beste batzuen aburuz, ordea, bideojokoek burua garatzen laguntzen dute.” (**dira**)

Beste batzuen aburuz, ordea, burua garatzeko.

- b) “Erreflexuen azkartasuna eta koordinazioa eskatzen dute. Gainera, ezagutza berriak jasotzeko baliagarriak dira.” (**- z gain**)

Erreflexuen azkartasuna eta koordinazioa, ezagutza berriak jasotzeko baliagarriak dira.

7. Topatu testuko lehenengo hamabi lerroetan honako gramatika kategoria hauen adibideak: (1 puntu)

(Adibidez)

Izen arruta: joko

Izen berezi bat: _____

Adjektibo bat (izenondo bat): _____

Aditz trinko bat: _____

Arberbio bat (aditzondo bat): _____

Hitz elkartu bat: _____

8. Hizkuntza erabiltzen. Deklinabidea eta aditza. (1,1 puntu)

Testu labur hau antzinako mahai joko bati buruzkoa da, partxisari buruzkoa, alegia. Testuan aditzak eta deklinabide atziki batzuk ezabatu ditugu. Hutsuneak bete behar dituzu.

Honela daude markatuta: deklinabide atzikizkiak:....., eta aditzak: _____.

Partxis taulak 68 laukitxo ditu eta gurutze forma _____; laukitxo horietatik, 16 seguruak dira (markatuta daude). Lau fitxa multzo erabiltzen _____, eta multzo bakoitzak kolore bereko lau fitxa _____,


Jokalari bakoitzak kolore zehatz bateko fitxa multzo bat erabiliko _____.

Lau izkin..... ibilbidetik kanpo gelditzen diren tokiak daude, etxeak, etxe bat fitxa multzo bakoitzeko. Leku horietan gordetzen dira oraindik jokoan sartuak ez dauden fitxak.

Jokalari..... txandaka jaurtitzen dute dadoa.

Jokoaren helburua da jokalariek norberaren fitxa guztiak bukaerako laukitxo..... eramatea; horretarako jokoaren arau.....hartu behar dituzte kontu.....

Partida bukatzen _____ jokalaria batek bere fitxa guztiak bera..... dagokion helmuga-laukian sartzen dituenean.



9. IDAZLANA

Mezu elektronikoa hau jaso duzu. Irakurri arretaz eta erantzun lagunari behean ematen zaizkizun jarraibideak erabiliz. Gutxienez, 120 hitz idatzi behar dituzu. (3 puntu)

Aupa, aspaldiko!

Zer moduz? Ondo espero dut.

Ez dizut ezer esan orain arte, baina albiste on bat daukat: 'Gazte gara gazte' aldizkarian kontratatu naute! Oso pozik nago lanpostu berriarekin.

Aldizkarian, gazteei interesatzen zaizkien gaietaz buruz idazten dugu, eta kontua da bideojokoei buruzko artikulua bat idazteko esan didatela. Horregatik idazten dizut.

Materiala biltzen ari naiz eta uste dut gazte baten iritzia ematea oso ideia ona izan daitekeela. Eta zurekin gogoratu naiz berehala. Zer uste duzu? Prest zaude niri laguntzeko?

Zure iritzia jakin nahi dut: zer bideojoko gustatzen zaizu? zergatik? nolakoa da? zer dauka ona eta zer txarra? Badakizu... ez dakit gauza handirik bideojokoei buruz.

Behar zaitut! Idatzi lehenbailehen.

Besarkada handi bat

Mikel

Mezuari erantzun jarraibide hauek kontuan hartuz:

- Poztu zaituz lanpostu berriarekin.
- Adierazi zure prestutasuna laguntzeko.
- Iradoki bideojoko bat.
- Deskribatu bideojokoa.
- Esan zergatik duzun gustuko, zer duen ona eta zer txarra ere bai.
- Idatzi, gutxienez, 120 hitz

Idatzi hemen

.....

.....

.....

.....

5.....

.....

.....

.....

.....

10.....

.....

.....

.....

.....

15.....

.....

.....

.....

.....

20.....